

Koaderno

# ESKOLA FEMINISTA ANTIRRAZISTAK LANTZEN

*#followtratuonak*



**“Irakats daiteke dauden menderakuntza sistemak indartu gabe”**


bell hooks

**“Ez gaituzte gure arteko ezberdintasunek zatitzen, ezberdintasun horiek aitortu, onartu eta ospatzeko ezintasunak baizik”**

Audre Lorde

**“Guztiok dakigu zerbait, guztiok dugu ez dakigun zerbait. Horregatik, beti ari gara ikasten”**

Paulo Freire





## SARRERA

Koaderno hau beren institutueta talde feministetako nerabe eta gazteekin egindako topaketa-tailer batetik sortu zen. Bertan, arrazismoaren aurkako eskola feministak lantzen jarraitzeko praktika onak, zailtasunak eta interesak partekatu genituen.

Nerabezaroa eta gaztaroa igaro ditugunean, gu baino gazteago direnek nola pentsatu, sentitu edo jardun behar luketen zehazten ausartu ohi gara, kontuan hartu gabe testuinguruak eraldatu egiten direla; hala ere, egon daitezke geure pertzepzioaren arabera asko mugitu ez direla sentitzen ditugun gauzak, edo "belaunaldi hauek okerrera doaz" dioen ustearekin bat egitera eramaten gaituztenak.

Eta badakizue gauza bat? Belaunaldi bakoitzak esaldi berberak esan ditu ondoko belaunaldiei buruz, *"nire garaian hori ez zen gertatzen"*, *"gazteak ginenean horrela edo bestela egiten genuen"*, *"gazteek ez dakite"*, *"orain kontua okerrago dago"*...

Hara, besteak ikustea, haien esperientziak entzutea, haien beharrak jasotzea edo haiekin elkarrizketak izatea eragozten diguten zenbat hitz.

### **(Geure burua) entzuteko prest al gaude?**

### **Nondik ari gara elkarrekin harremanetan?**

Jarrera horrek, seguru asko, urundu egiten gaitu Z belaunaldiaren kontakizunetatik eta bizipenetatik; epaitu egiten ditugu, uste baitugu gure esperientziei eta urteei esker jakintza handiagoa dugula, eta ideiak, beldurrak edo kezka proiektatzen ditugu beren buruei galdera asko egiten ari zaizkien, eta, halakorik benetan baldin bada, "helduak izatea" deitzen dugun horretan "egokitzen" saiatzen ari diren gorputz txiki horietan.

Zer-nolako hizkuntzak erabiltzen ditugu?, nola hurbiltzen gara?, mesfidantzatik?, jakin-minetik?, ezjakintasunetik?, kritikatik? Zer ideia ditugu aurretik nerabeei eta gazteei buruz?

**Gelditu gaitzen une batez**, gogora dezagun etengabe garela geure buruaren ispilu, eta batzuetan izan ginen eta oraindik geuregan dagoen, eta ulertzen ez zuten, nerabe harekin bat egin dezakegula.

Z belaunaldiak bere kodeak erabiltzen ditu, eta ez dira besteak baino hobeak edo okerragoak, ezberdinak baizik, eta baliteke guri horiek ulertzea kostatzea, baina horrek ez du esan nahi horiek baliogabetu edo minimizatu behar ditugunik. Aurrerago aztertuko dugu hori.

Hezkuntza formalean eta informalean lan egindako urte hauetan guztietan, proposamen kolektiboak sortzeko duten premia sumatu dugu, etengabe gainbegiratuta eta epaituta sentitu gabe.

Diskurtso politiko kritikoak sortu eta elikatu ahal izateko premia, beren ahotsetatik, gorputzetatik eta eragin-eremuetatik

Gogoan dut institutu bateko talde feminista batek M8ko manifestazioan parte hartzera gonbidatu ninduela, eta ordura arte pentsatu ez nuen zerbait gertatu zela, beti horrela egin zelako edo hala uste nuelako.

Manifestazioan geunden, eta ez genituen ondo entzuten kantuek eta aldarrikapenak, haiei jarraitu ahal izateko, eta orduan mugikorrek in ikusi nituen; nire aurreiritzia piztu egin zen, eta pentsatzen nuen hura berretsi zuen: “une oro mugikorrarekin daude, hobe lukete hori utzi eta hemen egon benetan”. Eta orduan, bat-batean, neska batek:

- *“aldarrikapen-esaldien zerrenda bilatzen ari naiz”*

- beste batek *“ni whatsapp taldeetan bila nabil”*

- hirugarren batek hau esan zuen: *“lagunok, whatsapp bat bidali berri dizuet, aurreko egunean pentsatu genituen abestien eta esaldien zerrendarekin”*

Minutu batzuk gehiago eman zituzten elkarrekin hizketan, ni jakin-min eta harridura handiz begira nengoela, eta, bat-batean, haiek landutako esaldietako bat oihukatzen hastea erabaki zuten.

Haien gorputzek ahotsa ateratzen ikustea, mugitzen, zabaltzen, opari bat iruditu zitzaidan, eta, aldi berean, ur hotzeko pitxerkada bat burutik behera.

Elkarren aurkako emozioak sentitu nituen; alde batetik, pozik nengoen nola erreakzionatu zuten ikusita, eta, bestetik, lotsatuta, ez zeudela presente pentsatzeagatik, eta presentziari emana nion esanahiarengatik.

Horrek bidea eman zidan eragiteko moduei buruz pentsatzeko, kodeei buruz, kode horiek gertatzen dena egokitze moduari buruz, eta hori kontatzen dut mezu asko transmititu dizkigun gizarte batean bizi garelako, barneratu egin ditugulako, eta horiek (eta geure buruak) adeitasunez eta arduraz berrikusten hasteko eta jarraitzeko garaia delako.

Argitalpen honen asmoa da orain gauden unearn argazki txiki bat izatea, eta hartu eta eragin nahi ditugun norabide eta konpromisoen iparrorratza.

**Irekierarako gonbita** ere bada, gureak ez diren ikuspegietara hurbiltzeko, nahiz eta geure burua deseroso aurkituko dugula jakin.



## BEGIRATZEKO (ETA GEURE BURUARI BEGIRATZEKO) GAUZATXOAK

Hizkuntza da sistema honen zutabeetako bat; hura eraikitzen joan gara, eta ez dago gorputz nerabeei, gorputz ez-zuriei, gorputz neurodibergenteei, gorputz lodiei, queer gorputzei... buruz ezarritako aurreiritzi eta iruditeria alboratuetatik libre.

Hizkuntzak garrantzia du, eta gure kulturen isla da, hizkuntzek errealitateak eraikitzen dituztelako, bai izendatuz, bai ez izendatuz, eta horrek iruditeria kolektibo bat sortzen du gauzak kontatzeko (eta geure burua kontatzeko) dugun moduari buruz.

Hizkuntza emana datorkigu, eta familietatik, eskoletatik eta komunikabideetatik ikasten dugu, eta tarte gutxi uzten du ikasitako hori zalantzan jartzeko.

Historiak kontatzen dizkiguten moduaren, irakurtzen eta ikusten dugunaren arabera ikasten dugu. Eta horrela,

adierazpenak, jarrerak eta portaerak erreproduzitzen ditugu, zuzenak diren ala ez planteatu gabe, mina sortzen ari diren, bidegabeak diren, orokorkeriak diren...

Izan ere, sistema hau "normaltasunaren molde" horietan sartzen ez diren gorputzak gorrotatzeko diseinatuta dago, eta pentsatuko duzue gorroto oso hitz gogorra edo neurritz gainekoa dela, ez al duzu uste?; bada, horrekin esan nahi duguna argitzen joango gara.

*"Beti esan izan da", "nik ez dut kolorerik ikusten", "ez matxismorik, ez feminismorik", "bisexualitatea moda bat da", "hitz egiteko modu bat baino ez da", "jada ezin da ezertaz ere hitz egin"... eta gisako esaldiak, ezagunak egiten al zaizkigu?*

Izan ere, komentario horiek **autokritika ariketarik** ez egiteko aurreiritziz eta justifikazioz betetako hiztegi baten zati dira.

Dokumentu honek geure buruari begiratzeko iradokizun bat izateko asmoa du, eta jakin badakigu hasiera batean zenbait arbuio edo zalantza sortuko dituela, beharbada; horregatik, gogoratzen dut irekieratik irakurri behar dela.

Garrantzitsua da jakitea zer eragin duen sistema nagusiak (matxismoa, arrazismoa, LGTBIQA+fobia, kapazitismoa, klasismoa...) identitatea eraikitzeke prozesuan dabiltzan eta bizi diren nerabeen eta gazteen gorputzetan. Hezkuntza-komunitateak izugarritzko erantzukizuna du diskriminazio-egoerak gutxitzeko eta egunero harremana dugun ikasle horiekin, eta ikasle horientzat, ikaskuntza eta hazkunde baliotsuak eta esanguratsuak bultzatzeko.

Hezitzaile gisa berrikusketak egiten ditugula uste izaten da, baina errealitatea oso bestelakoa da. Pertsona guztiok ditugu aurreiritziak, eta, askotan, ez gara horretaz jabetzen, eta horiek erreproduzitu eta mantentzen laguntzen dugu, zalantzan jarri gabe.

Sonya Renee Taylorrek *"El cuerpo no es una disculpa"* (Gorputza ez da aitzakia) liburuan dioenez, berdina garelako ideia maskara bat da. Norbaiten esperientzia ulertzen ez dugunean, txikiagotu edo homogeneizatu egiten dugu.

Gauza bat bizi ez dugunean, zaila da ulertzea gureak ez bezalako esperientziak gertatzen direla. Bada, ulermena ez da errespetuaren, maitasunaren, tratu onaren alde aurreko baldintza.

Beste pertsona baten lekuan jarri eta ulertu egin behar dugula ere esan digute, eta horrela ulertuko dugula nola sentitzen den, eta orduan, hor, justu hortxe, gure ustez haren sentimenduetan eta pentsamenduetan blai eginda gaudenean, gure zenbait portaera edo adierazpen aldatzen ditugula; bitxia, ezta?

Hau da, planteamendu hori xehe-xehe aztertzen baldin badugu, esaten ari gara nik, gorputz jakin batekin, esperientzia batzuekin eta nortasun bakar batekin, zure oinetakoetan jartzeko, galdera asko egin behar ditudala ulertu ahal izateko.

Ez gara konturatzen horrela pertsona hori oraindik ere esploratzen ari den bizipenak kontatzera eramaten ari garela, eta agian oraindik ez dituela aurkitu hori kontatzeko hitzak, edo, bestetik, edo horrez gain, agian nazkatuta dagoela bere izatea, sentitzea, egitea zalantzan jartzen duten galderari erantzuteaz, azkenean elkarrizketa *“hori jadanik ez da gertatzen”*, *“zuk egin behar duzuna da...”* edo gisako batekin amaitzeko, eta *“normaltasuna deitutako”* horretan sartzen ez diren gorputz horiek minimizatzen, ezabatzen eta lotsarazten dituzten ezin konta ahala iritzirekin.

Gorputzak askotarikoak dira; Sonya Renee Taylorrek dioenari jarraituz –ikusten duzue ez gustuko baitugu–, **adiskidetu egin behar da ezberdintasunarekin, ez ulertzearekin eta norberaren gorputzarekin.**

**Nire gorputza den bezalakoa da,** eta begiratzen dioten begien arabera irakurketa dauka, eta hemen gelditu nahi dugu pixka batean, eta elkarrizketa kritikorako proposa daitezkeen galdera batzuk planteatu.


Esan digute gorputz “normal” bat dagoela, ezaugarri eta adierazpen batzuk dituena, eta txikitatik sartu digute hori, liburuen, iragarkien, aldizkarien, filmen bidez.

*Gogoan duzu zeure burua lehenengo aldiz konparatu zenuenean edo islaturik ikusi ez zenuenean, eta ez zenuela zure gorputzean egon nahi? Zer sentazio piztu ziren?*

Edo zeure gorputza arriskuarekin edo desiragarri ez denarekin lotu denean, eta orduan ezberdintasuna ezkutatu beharreko arazotzat hartu duzunean, edo lotsaraztekoa, kasurik egin behar ez zaiona edo jazarri beharrekoa?

*zer-nolako eragina du osasun mentalean eta gorputz-osasunean?*





Ezberdintasuna ikusezin bihurtzeak ideia bat baliozkotzen du: badirela, guregan, minimizatu, ezkutatu, ukatu... behar diren zatiak.

Horregatik, ezberdintasuna onartzeak aukera ematen digu hitz egiteko eta ikusteko (geure burua ere ikusiz), **fokua hierarkiak hackeatu eta desarmatzean** jarrita, gizarte-justiziarekiko, samurtasunarekiko eta pentsamendu kritikoarekiko konpromisoaren pedagogietan oinarrituta.

Begiratzeko (eta geure buruari begiratzeko) gauzatxo hauek Sonya Renee Taylorren beste galdera batekin amaituko ditut, argi uzteko haren lana asko gustatzen zaigula eta inspiratzailea eta eskuzabala iruditzen zaigula.

**Z**ein modutan saiatu izan zara beste pertsonak zu  
"bezalakoak" izan daitezen?

**H**aiei identitatearen zer zati ezabatu dituzu hori  
egitean?



## ARGAZKIA

### ZER DAGO FOKURATUA ETA ZER DESFOKURATUA?

bell hooksek *"Enseñar pensamiento crítico"* lanean (Pentsamendu kritikoa irakatsi) dioen bezala, konpromisoaren pedagogiak ideiak ereiten bete-betean parte hartzeko gai diren ikasle eta irakasle autonomoak sortzen ditu.

Hezitzaile garenez gero, gure eginkizuna ikasleak pentsamendu kritikoaren eta errukiaren abenturan gidatzea da. Elkarrizketa sustatuz, besteen presentzia aitortzen dugu, tradizionalki irakasleengan ardaztutakoa gaindituz, eta ikasgelako dinamikak eraldatzen hasten dira.

Gogorarazten dut prozesu bat dela, eta prozesu orok bezala bere erritmoak, korapiloak, zalantzak dituela; gure lana horiek askatzen laguntzea dela, irakastearen plazerarekin birkonektatuz.

Mundu guztiak sentitzen du ekarpenak egiten dituela eta taldearentzat baliotsua dela, eta hortik elikatzen da ikaskuntza-komunitate baten konpromisoa.

**Elkarrizketa, bere horretan, tresna pedagogikoa da** ikasgela barruan zein kanpoan.

Atzera begira, gogoan dut ikasle batek, elkar ezagutu genuen lehen egunean, solasean hasteko galdera batzuk egin ondoren, eskua jaso eta galdera hau egin zidala: “hau notarako da?”; horrek pentsarazi zidan ohituta gaudela denbora guztian kalifikatuak izaten, ideia edo jarrera bati zenbakizko oinarria jartzen, eta nik ezetz erantzun ondoren, hurrengo galdera honako hau izan zen: “hortaz, benetan pentsatzen duguna esatea nahi duzu?”.

Eta, buala! Hor zegoen, ikasitako zenbat diskurtso barneratu ditugu geure buruari entzun nahi duguna esateko, baina mastekatu gabe? Zerekin konektatzen gara, pentsatzen eta sentitzen dudana zintzo adierazteko?, parte-hartzearen zein inhibitzaile aktibatzen dira elkarrizketetan?

Badakigu, halaber, gu bizi garen kulturaren pertsona askok zailtasunak ditugula gure ideiak komunikatzeko, eta,

seguruenik, hori gertatzen da denbora gehiena informazio-kontsumitzaile pasiboak garelako edo hitza ukatzen zaigulako.

Hitz egitea, izendatzeko gai izatea errebindikatzeko modu bat da; ikasle askok ahotsik ez dutela sentitzen dute, ez dutela entzutea merezi duen ezer ere esateko. Ideia hori maiz errepikatu zen egin genuen topaketan, eta hona ekarri nahi dugu, geure burua birpentsatzeko.

Elkarrizketak, ahots bakoitzarentzako gunea sortzeaz gain, ziurtzat ematen du **ahots guztiek merezi dutela entzunak izatea**. Horrek, batzuetan, kaosa, gatatzaren beldurra, ezarritako hezkuntza-programak aurrera ez egitearen sentsazioa eragin diezaieke irakasleei.

Elkarrizketetan gertatzen den guztia baliotsua da, nahiz eta gaia desbideratu dela senti dezakegun, hor taldearen interesa edo ardura dagoela hauteman dezakegu, eta, irakasle garenez, hori jasotzeko aukera eta egokiera dugu.

Eta, aldi berean, amaitutakoan higadura emozionaleko sentsazioa izan dezakegu, hitz orok emozioa baitakar berarekin, eta kontziente izatea eta hari arreta

ematea ere hezkuntza-komunitate gisa egiten dugun lanaren parte da.

Zenbat aldiz sartu gara ikasgelan aurrekoaren karga emozionalarekin, eta hurrengoan proiektatu dugu nahi gabe? Niri gertatzen zaidalako diot hori, eta, asmorik gabe egiten badugu ere, horren ardura hartu behar dugulako.

Programazioak eta eskolako eremuak diseinatuta dauden moduek alde batetik bestera korrika ibilarazten gaituzte, astirik gabe arnasa hartzeko, eztarrian trabatu zaizkigun emozioak astintzeko, ura edateko, pixa egiteko.

Produktibitaterako pentsatuta dago “(i)logika” hori, eta ez eskolen aurretik, bitartean eta ondoren gauzak gertatzen zaizkien gorputzetarako. Ikasleak ez dira beren emozioak ikasgelara ekartzen dituzten bakarrak, irakasleak ere egiten dugu hori.

Eta askotan entzun dut, hainbat hezkuntza- eta prestakuntza-esparrutan, *“bueno, emozioak atetik kanpo utzi, orain hemen gaude”*, baina, zer?

**Gelditu egingo gara berriro.** Ez dugu horiek inon uzteko super-ahalmenik, beti baitaramatzagu gurekin eta irakaskuntza eta ikaskuntza baldintzatuko baitituzte.

Egin dezakeguna, eta nahiko ondo egiten dugu, kasurik ez egitea da, ukatzea, baita disoziatzea eta eskola pilotu automatikoarekin ematea ere, baina horrela jarraitu nahi dugu irakasten?, emoziorik gabe?

Hori esanda, ez dut esan nahi laguntzeko eta zutik eusteko ditugun estrategiak eta baliabideak baliozkoak ez direnik; izan ere, baliozkoak dira, badirenez, eta geure burua zaintzeko eta hasieran seguru sentitzeko sortu ditugu, ez baitziguten beste modu batean egiten erakutsi.

Oso modu konplexuan aholkatzen dugu nola artatzen ditugun emozio horiek ikusi ahal izatea, informazioa ematen baitigute geure burua ondo tratatzeko eta besteak ondo tratatzeko. **Emozioa konpromiso akademikoarekin batera bizi da**, eta, areago, kitzikatu ere egiten du.

Geure buruari galdetzen diogu:

**Heziketa, zertarako?**

**Zein dira helburuak?**

Ikaskuntza partekatu horretan zaugarriak izan gaitzkeela ohartzeko leuntasuna dakarkigu, programazioen zurruntasun handiaren aurrean.

Izan ere, kontatu digute, halaber, gure zeregina datuak partekatzetik edo ikasleek ere egin ez dituzten galderari erantzutetik abiatzen dela, Paulo Freirek dioen moduan.

Hortaz, **zaugarritasunarekin konektatzen** uztea ez oso serio eta ez oso profesionaltzat jo izan dugu, edo gurekin gehiegizko konfiantza hartuko dutelako ideiarekin lotu, entzun izan dudana bezala.

Bada, ikasgeletan bizi izan dudana esperientzia eder eta desafiatsuak bat dakart hona, hainbat egunez gorputzari lotutako lotsari buruz hitz egin baikenuen, elkarri maitasunez begiratzeko mugatzen gaituzten mezuei eta sinemenei buruz.

Ikasleei proposatu nien paper zati batean idaztea gustatzen ez zitzaizkien beren gorputz-atalak, beren gorputzei buruz edo beren adierazteko eta izateko moduei buruz jaso zituzten hitzak edo adierazpenak.

Bukatu zutenean, bildu eta denak lurrean jarri nituen; begiak itxi eta arnasa hartzeko eskatu nituen, papertxo guztiak ozen irakurtzen nituen bitartean.

Irakurri ahala, nire urdaila itxi egiten zela sentitzen nuen, eztarria tenkatu egiten zela, eskuak izoztu egiten zitzaizkidala. Begiak malkoz betetzen hasi zitzaizkidan, amorrua eta tristura sentitzen nituen, eta pentsatzen nuen, "o, ez, negar egiten ikusiko naute!", eta errepikatu egiten nion neure buruari, honek ez du zurekin zerikusirik, haien hitzak dira, baina argi zegoen nirekin zerikusia zuela, nahi ez izan arren nire gorputzak oroimena duelako eta konektatu egiten delako.

Orduan, amaitu nuenean, arnasketa bateratua egin genuen eta gure gorputzek lasaitzeko behar zituzten mugimenduak, geure buruak astindu, ahoak ireki, bihurritu...

Eta begiak ireki zituztenean, begirada urtsu gehiago zegoen, eta galdetu zidaten

- Irakasle, benetan ari zara negarrez?

Ez nabaritzeko ahalegin guztiak egin nituen arren, ezin nuen ezkutatu; esana zidaten, eta halaxe bizi izan nuen nire urteetan eskolan, ikasgela ez dela negar egiteko gunea, eta

are gutxiago irakasleak negar egitekoa. Ez zitzaigun irakatsi nola erantzun guk geuk edo ikasleek sentimendu izugarriak azaleratzen ditugunean edo dituztenean.

Beraz, nire sinesmenak oso azkar hitz egiten ziren, imajina dezakezue... minutu batzuk hartu nituen erantzuteko, zergatik ez hitz egin horretaz?, ez ote zen zintzoagoa, neure buruarekin eta gainerakoekin, emozio horiek bizitzea eta erakustea?

Elkarrizketan esaten ari ginenari emandako erantzun emozionala zen, eta lasaitu egin nintzen; gainerako denboratartean, gorputz normal, desiragarri eta maitasunaren zordun horien iruditeriak sortzen duen minaz hitz egin genuen, eta min hori bizitzeko, zalantzan jartzeko eta sendatzeko guneei buruz.

Hori kontatzen dut gertatzeko aukera emateko, geure zentzumenetatik ikasten dugu, geure sentimenduetatik, eta ikasten dugu nola horiek jakiten laguntzen diguten.

bell hooksen gogoeta honekin amaituko dugu:

**“Pentsamendu kritikoak bizitza osoan ikastearekiko grina sustatzen du (...) jakinduria praktikoak lagundu egiten digu gogora ekartzen ideiak ez direla finkoak eta estatikoak, eta beti aldaketaren menpe daudela (...), intuizioak eta adimen emozionaleko beste forma batzuek testuinguru emankor bat sortzeko, etengabe jakintza bilatzeko, duten funtsezko eginkizuna onartzera garamatza.**



# HARIRA!

## **PRAKTIKA DEZAGUN HEZIKETA JUSTIZIA SOZIALERAKO ETA BIZITZARAKO**

Badakigu hezkuntza-programazioek denbora mugatua dutela eta, askotan, edukiak jarraitu beharreko eskema gisa ematen zaizkigula, eta argialetxe batzuek interes handiegia dutela estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako diskurtsoak erreproduzitzen jarraitzeko, baina horrek ez du kentzen pentsamendu kritiko batetik haiek berrikusteko hezkuntza-aukera.

### **Gogoeta kolektiboa egitera garamatzaten galderak**

- Nortzuk daude presente kontatzen ditugun historietan?
- Nortzuk falta dira?
- Nondik daude kontatuta azaltzen ditugun historiak?
- Beti horrela izan da?, beste modu batzuetan kontatu dezakegu?
- Nola eragiten du komunitate eta kolektibo minorizatuen irudikapenik ezak edo irudikapen estereotipatuak?
- Zer eragin du munduaren hegoaldeko ekarpen historiko eta garaikideen eta erreferenteen ezabapenak ikasle arrazializatuen autoestimuan eta autokonfiantzan?

bell hooks-ekin jarraituz, **ikasgelan hitz bakar bat esan aurretik, gorputz gisa batzen gara bertan**. Elkar irakurtzen dugu begiradarekin, eta besteei buruz aurrez pentsatutako ideiak aktibatuz joaten dira, hizkuntzaren bidez eta mundua begiratzen eta ulertzen irakatsi zaigun moduaren bidez elikatuz joan direnak.

**Sistema honetan dugun lekua ezagutzeak** gure aurreiritziak eta jarrerak berrikusten laguntzen digu. Horrela, zeharkatuko ditugun pribilegio eta zapalkuntzen gurpila aztertuko dugu.

Zer esan nahi dugu horrekin?

Sistema hau gorputzaren, jakinduriaren eta egitekoaren hierarkien gainean diseinatuta dagoela, eta, horren ondorioz, sistemak “araua” eraikitzen ari direnak saritzen eta babesten dituen egitura bat duela, eta hor ez daudenak zigortzen, zapaltzen, ukatzen eta jazartzen dituela.

Ikus dezagun patxadaz gurpila, eta proposatzen dugu norberak egin dezala **gurpil orretan bere burua kokatzeko ariketa**.

Kontuz, horrek ez du esan nahi pertsona txarra naizenik pribilegioaren erdiguneko mailetan banago, kontua ez da pertsonak onak edo txarrak diren; kontua geure kontzientziak piztea da, geure buruak berrikustea, eta jabetzea beste gorputz batzuekin nola erlazionatzen garen eta ezberdintasunak nola lotzen eta erlazionatzen diren, eta horiek nola erreproduzitzen ditugun.




Horrela, hobeto jabetuko gara gure ekintza eta portaerez, arduratsuak izateko eta tratu txarrak eta gorrotoa eragiten dituzten sistema horien aurrean justizia soziala lantzen jarraitzeko.

**Desikastea bere erritmoak dituen prozesua da**, eta, beraz, lasai, kontatu digutena edo kontatu ez digutena birplanteatzeak zalantzan jarriko dizkigu barneratutako mezu eta eskema asko.

Sentipen eta emozio deserosoekin topo egitera eramango gaitu, zaurgarritasun zuria agertuko da, defentsako portaerak eta emozioak jarrera edo iruzkin arrazista bat seinalatzen zaigunean, ager daitezkeenak haserrez, erruduntasunez, beldurrez, isiltasunez, negarrez, eztabaida utziz; hori gertatzen dela ukatzera eta gurekin zerikusirik ez duela esatera ere iritsi gaitezke.

Baina ez da horrela, eta gaiari buruz hitz egiteari uzteagatik ez da gaia desagertuko, gertatzen segituko du; besterik gabe, eta sistema zapaltzaile horren parte izatea aukeratzen dugu, dela omisioagatik, dela parte hartuta.

Beraz, **hartu denbora eta eman tarte bat barruko azkura horri**, berrikusteko praktikara goaz eta.



Iturria: Patricia Hill Collins. Soziologoa

**Zer moduz joan da?, zein lekutan ezagutu duzu zeure burua?, zer moduz sentitzen zara?**

Gurpil honek gure identitatea zeharkatzen duten ardatzei egiten die erreferentzia; dimentsio eta esperientzia komun batzuk partekatzen ditugun arren, identitatea bakarra eta errepikaezina da.

Kimberlé W. Crenshawek interseksionalitatearen kontzeptua garatu du, eta ez dugu aipatu gabe utzi nahi, mugimendu sozial eta politiko guztiak argitzen baititu.

Interseksionalitatearen teoriak deskribatzen du nola arraza, klasea, generoa, sexualitateak, espiritualtasunak eta beste ezaugarri indibidual batzuk gurutzatu eta gainjarri egiten diren, pertsona bakoitzarentzat egoera bakarra sortuz; horregatik, borrokak ardatz bakar batean zentratzeak beste batzuk murrizten ditu.

Behin modu sinbolikoan azaldu zidaten, eta hemen partekatuko dut, agian baliagarria izango zaigulakoan.

Bizkotxo bat egingo dugu, eta horretarako azukrea, irina, arrautzak, jogurta, kokoa eta azenarioa ditugu, adibidez; argi dugu zein diren osagaiak, bereizita daudenean.

Baina, horiek denak irabiatu eta bizkotxo zoragarria labetik atera ondoren, ezinezkoa da zati bakoitza berriro bereiztea, eta zati horiek guztiak bizkotxoa bera dira.

Bada, identitateei gauza bera gertatzen zaie, besteengana hurbildu edo besteengandik urruntzen gaituzten ezaugarriak ikus ditzakegu, baina parte bat baino ikusi nahi ez izateak aurrean ditugun pertsonen esperientziak eta bizipenak ukatzea eta ezabatzea dakar, eta hori gertatzen da, adibidez, mugimendu feminista hegemonikoetan edo zurietan, zeinetan ardatza generoan soilik oinarritzen baita.

Argitu behar da feminista izateak ez dizula arrazistatik duzuna kentzen, eta abiapuntutzat hartuta aurreiritziak ditugula, ikuspegi horren arabera hezi eta sozializatuak izan baikara, feminismo zuriak beste identitate batzuk ikusezin bihurtzen eta gutxien ditu, eta emakume eta feminitate

arrazializatuen, migratzaileen, genero ez-bitarrekoen eta langile-klasekoen aurkako indarkeriak erreproduzitzen.

Ulertzen dugu horrek azkura eragitea, baina ikusteko gai ez bagara, zailagoa egingo zaigu elkarrizketetan topo egin eta aliantzak sortzea.

Proiektua garatzean, hainbat kolektibori eskatu diegu feminismo ez-zuriei buruz hitz egin dezaten, hain zuzen ere, ezagutzeko eta hizpide izateko aldarrikapenak, premiak, interesak, eta horiek kolektibizatzen nola jarrai dezakegun, eta nola aurkitu indarkeriei aurre egiteko sendatze-eremuak.

Guatemalako eta Mendebaldeko Saharako kide batzuk izan genituen gurekin. Eskoletako neska arrazializatuek, batez ere, lasaitua sentitu zuten beren buruak islatuta ikusi zituztelako, dela azal-tonuengatik, dela ileagatik, dela ezagunak egiten zitzaizkien adierazpen-moldeengatik.

Eta interesgarria iruditzen zait gu ere hortxe gelditzea, irakasleria batik bat zuria baita; beraz, erreferenterik eza nabari da, eta horregatik azpimarratzen dugu berrikuspen horiek egin beharra, eragina baitute adingabe horien hazkundera eta haiek amets egiteko eta beren buruak

hainbat prestakuntza- edo lan-lekutan irudikatzeko dituzten eskubideetan.

Eskola guztietan gehien errepikatutako eztabaidetako bat esaldi hori izan zen, ezaguna egingo zaiguna, *“bat ukitzen badute, guztiok ukitzen gaituzte”*. Kideek galdetu zuten ea hori errealia zen ala indarkeria gorputz zurien gainean zuzenean egiten zenerako baino ez al zuen balio; izan ere, a priori argi dago denei buruz ari garela, baina pixka bat sakonduz gero, diskriminazio- eta indarkeria-egoerak gertatu direnean, hala nola Huelvako marrubi-biltzaile migratzaileen kasuan, edo emakume beltz edo ijitoen aurkako mehatxuen edo hilketen kasuan, komunitate feministak ez dio halako oihartzunik ematen.

Non dago, bada, guztiak horiek?, benetan? Eta ez dut esaten feminismoa lokatu nahi dugulako, ezta hurrik eman ere, baina uste dut lokatz hori lur emankorra izan daitekeela guretzat, feminismo zuriaren erantzukizunari dei egiteko.

Antolatu genuen topaketan, ariketa hori nola egiten genuen ikusi behar zutela adierazi zuten neska nerabeek, eta

garrantzitsua zela, erreferente femenino zuriak izateaz gain, erreferente femenino arrazializatuak ere izatea, eta adierazi zuten beren ikastetxeetan ikerketa-proposamen gisa aurkezten zutela hori.

Pribilegio zuriari helduz berriro, Desireé Bela-Lobedderen ikaskuntza-komunitatean prestakuntza bat egin nuen, eta leku hau baliatzen dut, nahi baduzue, gomendatzeko dekonstrukzio horretan hasi edo jarraitzea, eta arrazismoaren aurkako tresnak aktibatzea, haien proposamenak eta hezkuntza-materialak behatzea, haien pedagogia oso argia, praktikoa eta maitasunezkoa baita.

Prestakuntza horretan, zirkulu bat betetzeko eskatu zigun, hain zuzen ere zeharkatzen gaituzten pribilegioak eta zapalkuntzak kartografiatzeko. Horren ondoren, 26 egoera zituen beste ariketa bat zegoen, geure buruak zeinetan ikusten genituen markatzeko.

Pertsona zuri gisa, banekien pribilegio bat okupatzen nuela, baina deskribatu zituen egoera askori erreparatu gabea nintzen, eta, jakina, lehen atalean aipatu dugun moduan, zerbait bizitzen ez dugunean, uste dugu ez dela existitzen edo ez dela hainbesterako.

Eta prestakuntza amaitu nuenean, ez nion uzten bueltak emateari eta beste ikaskide batzuekin hezkuntza-curriculum diseinatuta dagoen moduari buruz hitz egiteari.



Teoria eta praktika feministek arreta jarri dute matxismoaren sustriak aztertzearen garrantzian, ez bakarrik indarkeria fisikoei erreparatuz, baizik eta, era berean, emakumeen ekarpenei eta erreferenteei, aldizkarietako, liburuetako edo filmetako irudikapenei, gizonezko askok guk egindako lan asko berenganatzeari, eta ideiak sortzeko edo ekoizteko orduan "inpostorearen sindrome" hori garatzeko moduari.

Eta ikusten ari gara edukiak, irakurketak, eremuak birplanteatzen ari direla; zoragarria da, eta, hala nahi denean, egin daitekeela erakusten digu.

**Antirrazismoa gainditu gabeko irakasgaia da oraindik.** Sistema matxista hau arrazista ere bada, Desireé Belak *"Ponte a punto para el antirracismo"* liburuan (Prestatu zaitez antirrazismorako) dioen bezala, eta badakigu horrek zenbait kontrako erreakzio sor ditzakeela, eta, eskuarki horretatik desmarkatu nahi izaten dugula, arrazismoari buruzko ideia mugatu eta lotua baitugu, arrazismoa Ku Klux Klanek egiten zuena edo AEBko segregazio etniko-arraziala dela dioena, baina ez gaitezen joan hain urrun.

Arrazismoak hezkuntza-instituzioan ere jarduten du hemen eta orain, eta, beraz, gure hezkuntza-curriculumean agertzen da, lehen esan dugun bezala.

Eta hori egiten jarraitzen du Hegoalde Globaleko lurraldeetako historiak sistematikoki ezabatuz. Lehen aipatu dugu hori, eta agian izango da nori buruz ari garen dakienik eta beren buruari galdetzen dionik nori ari garen aipatzen, eta “hirugarren munduko herrialdeak” edo “herrialde azpigaratuak” esaten badugu, ezagunagoak egingo zaizkigu? Bada, adierazpen horiek kolonizazioaren herentziaren parte dira.

Historiak murriztuz edo europarren presentziaren ondorioei lotuta kontatzen hasiz, adibidez, “Amerikaren aurkikuntza” azalduz, eta beraz lehendik bertan bizi ziren komunitateen presentzia ukatuz, edo azalduz Mendebaldeko Sahara eta Ekuatore Ginea espainiar estatuko beste bi probintziatzat hartu zirela, kolonizazioaren ondorioz, eta “salbatzeko, aurrerapenik edo zibilizaziorik ez zegoelako” ideia erreproduzitzen.

Ederra litzateke berriro gelditu eta aurrerabidea zer den hausnartzea, norentzat eta zein gorputzen kontura. Edo

zer zibilizaziori buruz ari garen; historiara joaten bagara, horietako askori buruz hitz egin genezake.

Edo, zenbat dakigu ijito herriaren historiaz?, testuliburuetan agertzen dira?, nola irudikatu dira? Ikasgelan, ideia murriztaileak indartu ditzakegu munduan nola izan eta egon beharko genukeen aztertzeko ikuspegi eurozentriko eta *payozentriko* horretatik markatuta.

Silvia Agüerok ohar bikainak egiten ditu ikasgeletan antigitanismoari eta ijitoen erresistentziari eta ekarpenei buruz. “No soy tu gitana” bakarrizketan (Ez naiz zure ijito emea), erreproduzitu diren topikoak kontatzen ditu, eta zuriok entzun behar dugun historia-lezioa ematen du.

Edo Marsha P. Johnsonek LGTBQA+ kolektiboaren alde egindako ekarpenak ikusezin bihurtzea.

Adibide horiek eta beste askok nagusitasun zuriaren ideia indartzen dute eta indarkeria historikoa eta garaikidea justifikatzen dute.

**Historiek garrantzia dute**, eta eragin handia dute gure irudikapen mentaletan. Gertatutakoak ondorioak ditu gaur egun eta, irakasle garenez gero, gure hezkuntza-

jarduerak geure buruari aurrez egin gabeko galderak egiteko asmoa eduki behar du, nagusitasun zuriaz hitz egiteko eta aditzeko.

Arrazismoa pertsona zuriek sortutako eta egindako zapalkuntza da, eta, beraz, beharrezkoa da berrikustea gure eguneroko egintzek nola iraunarazten edo desegiten laguntzen duten zurien nagusitasuna.

Inoiz pentsatu al duzue nola eragiten duten irakasle gisa ditugun itxaropenek ikasle arrazializatuen garapen akademikoan?

Zenbat laguntzen dugu autobetetako profeziak garatzen?

Tarterik hartu al duzue pentsatzeko zer zaila eta mingarria den ikasleentzat komentario, jarrera edo portaera arrazista, matxista, lodifobo edo kapazitista bat seinalatutakoan ukazioa, minimizazioa edo arbuioa jasotzea?



## **PRAKTIKATU DEZAGUN, ohar batzuk:**

- 1. Ematen ditugun edukiak berrikusi.** Irakasgai guztietan ikuspegi antirrazista eta dekoloniala sar dezakegu, bai emakume beltzez hitz eginez zientzian, bai matematika-problemen enuntziatuetan jatorri ezberdinetako izenak jarritz. Ikasleek beren burua ikusiko dute, eta identifikatuta sentitu ahal izango dira.
- 2. Lurraldeen kolonizatu aurreko historiak ikertu.** Ba al zenekiten ezagutzen dugun Giza Eskubideen gutunak Mandenen Gutuna izeneko hasierako beste batean oinarritu zela? Maliko Inperioko enperadore Sundiata Keitak sortu zuen.
- 3. Guneak berrantolatu.** Mahaiak eta aulkiak nola banatuko diren berriz pentsatu; mahai eta aulki horietan elkarri begiratu ahal izango diote eta elkarrizketa erraztuko da, garondoei begiratu beste aukerarik ez izatetik libre.
- 4. Umorea ikasgelan, indar bitartekari gisa.** Ikastetxean ordu asko ematen ditugu elkarrekin bizitzen, lasaitu gaitzen eta irakasteko eta ikasteko plazeraz goza dezagun.
- 5. Diskriminazioak ikusarazi.** Ez dira nerabeen kontuak, garrantzitsua da horiek identifikatu eta erregistratzea. Arrazismoaren aurkako protokoloa landu.
- 6. Gertatzen denaren arrazoiak ezagutu.** Zergatik ez dute eskolaz kanpoko jardueretan edo txangoetan izena ematen? Ahal izanez gero, ezberdintasuna ez handitzeko bekarako aukera.
- 7. Irakasleak 24/7 ereduak garela onartu.** Ikasle asko gai batzuen aurrean nola erreakzionatzen dugun ikusteko zain daude.
- 8. Ikasleen talentuak esploratzen lagundu.** Ikasle guztiek ez dute ikasteko bide bera, edo ez dituzte motibazio berak, beren trebetasunak eta gaitasunak esploratzera jo dezaten adoretu.
- 9. Emozioak ikasgelaren erdigunean.** Emozio bakoitzak gorputz bat eta mugimendu batzuk ditu, behatu horiei, erantzun ahal izateko.
- 10. Ikasgelan ditugun esperientziak balioetsi.** Irakasleok ikasten jarraitzen dugu, gure esperientziak kokatzaile batetik pasatu, baliagarria bazaigu mantendu, eta jada funtzionatzen ez diguna askatu.



# LOTURAK

*Eta, azkenaldian, zer irakurtzen, ikusten eta entzuten duzu?*

- **“Coeduca, Deconstruye, Transforma”** gida didaktikoa. <http://bitly.ws/RkIZ>
- “Nuevos espacios de seducción” gida. <http://bitly.ws/RkMk>
- *“La ciberviolencia hacia las adolescentes en las redes sociales”* gida didaktikoa. <http://bitly.ws/RkPR>
- *“Conectar sin que nos raye”* gida didaktikoa. <http://bitly.ws/RkR3>
- Rebeldes de género bilduma. Despatriarcando masculinidades <http://bitly.ws/RkRP>
- Fahafahana proiektua. *“Mainty. Propuesta de guía docente antirracista”*. <http://bitly.ws/RkU4>
- Munduko Medikuek elkaratearen heziketa-webgunea. *Proyecto Gender sobre sexualidades y buenos tratos.* <https://gender.semillaseducativas.org/>

## **Serie** batzuk:

- *“Reinas de África. Njinga”* doku-seriea.
- *“Pose”* seriea.
- *“Grown-ish”* seriea.
- *“Atypical”* seriea.
- *“Colin en blanco y negro”* seriea.
- *“Sex Education”* seriea.



Eta denboraz larri gabiltzala sentitzen dugunontzat eta eguneratu nahi dugunontzat, hona hemen

## **Podcast** eder-eder batzuk:

- La Güira
- LocaYo???
- Gotitas de poliamor
- Desireé Bela



# Lagundu diguten liburuak



# #Recomend(ación)

